

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos lehendakariak espezializazio adimentsuan lehentasunezkoak diren Nafarroako sektoreak defendatu ditu Bruselan

Markku Markkula Europako Eskualdeen Batzordeko lehendakariarekin bildu da

Osteguna, 2017.eko otsailak 9

Uxue Barkos Nafarroako lehendakariak Markku Markkula Europako Eskualdeen Batzordeko lehendakariarekin partekatu zituen atzo arratsaldean eskualdeak espezializazio adimentsuaren esparruan izango dituen erronkak, sektore jakin batzuen inguruko apustua

Uxue Barkosek Europako Eskualdeen Batzordeko –EBko tokiko eta eskualdeetako

agintarien batzar politikoa– lehendakariari jakinarazi zion Nafarroako Gobernuak indartu nahi dituen esparruak direla "automobilgintzaren industria, energia berriztagarriak, nekazaritzako ekoizpena eta kudeaketa soziosanitarioa".

Nafarroako lehendakaria ere Batzorde horretako kide da, eta defendatu zuen bere erkidegoak, txikia izanik ere, pisu handia duela Europa mailako automobilgintzaren industrian, eta esan zuen esparru hori oso lotuta dagoela energia berriztagarrien aldeko apustuarekin.

"Uste dugu gaitasuna dugula energia berriztagarri eta ez-fosiletan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko", adierazi zuen Barkosek. Gainera, nabarmendu zuen balio handikoa dela Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria, eta esan zuen Nafarroa "xumea dela tamainari dagokionez, baina baita anbizio handikoa ere".

Azkenik, "lan-merkatuaren inguruan ikuspuntu berri bat" garatzearen alde azaldu zen Barkos; adierazi zuen foru lurralde gisa politika fiskalak definitzeko duten gaitasunari esker, "sormena" bultzatzea. Arlo horretan, Nafarroak zinemaren industriari ematen dion laguntasuna azpimarratu zuen.

Nafarroako lehendakariak oso atsegintzat definitu zuen bilera, eta azaldu zuen Markkularekin izandako batzarra eta Europako Eskualdeen Batzordean izandako parte-hartzea "arazo partekatuei irtenbideak



Barkos lehendakaria Europako Eskualdeen Batzordeko lehendakari Markku Markkula agurtzen.

bilatzeko" unea izan direla.

Bestalde, Mikel Irujo Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkari eta eskualde horren ordezkari batzordekideak azaldu zuen espezializazio adimentsuari eta nazioarteko lankidetzari buruzko irizpen bat aurkeztuko dela laster, Europako Eskualdeen Batzordearen beraren ekimenez.

Irizpen hori egingo da Europako Batzordeak egindako kontsulta publikoaren amaierari (datorren martxo amaieran), Batzordeak maiatzean egingo duen komunikatuari eta gai horri buruz Helsinkin egingo den ekitaldiari begira.

"Egokia iruditu zitzaigun Eskualdeen Batzordeak, hori guztia gertatu aurretik, irizpen bat prestatzea, eskualdeen ahotsa presente egon dadin", azaldu zuen Irujok; eta gaineratu zuen "guztiok argi ikusten dugu espezializazioak eskualde bakoitzaren indibidualtasunetik harago joan behar duela".

Irujok adierazi zuen Europaren erronka "itzela" dela mundu "globalizatu" batean, 4.0 industriarekin, eta prozesu hori aurrera eramateko eskualdeen eta toki erakundearen arteko sinergiak sortzearen alde azaldu zen.

Nafarroako lehendakariak eta bere lantaldeak Bruselara egin duten bisitan, Miguel Arias Cañete Klimaren eta Energiaren aldeko Ekintzako komisarioarekin; Garraioko komisarioaren kabineteko buruarekin, eta Jyrki Katainen Enplegu, Hazkunde, Inbertsio eta Lehiakortasuneko komisarioarekin elkartu dira.